



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 58. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Uztaila - Abuztua



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

#### > Eskualdeetako Lantaldearen txostena: Gipuzkoa, eskualde europarren krisiaren aurkako politiken erreferentzia

Europar Batasuneko Eskualdeetako Lantaldeak Europako eskualde eta hirietan azken bi urteotan barrena krisiaren aurka garatutako politikei buruzko txostena aurkeztu du.

Txostenean Europako 27 eskualdek krisiaren aurka jarraitutako politikak eta neurriak identifikatzen dira, eta baita jarraipena egiteko tresnen adibideak edo eskualde horiek sustatutako ekimenen ondorioen ebaluazioa ere.

Eskualde horien artean Gipuzkoa aipatzen da, eta baita Krisiaren aurkako 2011 Plana, Gipuzkoako Ekonomia Behatokia, Gipuzkoako Panorama, Gipuzkoako Diagnostiko Estrategiko eta Koiunturazkoari buruzko txostena eta Gipuzkoa Berritzailearen Monitoring jarraipenerako tresna ere. Halaber, honako programa hauek ere aipatzen ditu: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Azpiegituren gaineko inbertsio programa, Gipuzkoako mikroenpresak sortzen laguntzeko eta lan autonomoaren sektorea laguntzeko programa eta Gipuzkoako enpresen internazionalizazio programa: produktua nazioartean saltzea.

Eskualdeetako Lantaldearen txostenak, era berean, Eusko Jaurlaritzak sustatutako eta Gipuzkoan eragina duten zenbait ekimen aipatzen ditu, hala nola, enpresei laguntzeko Ezohiko Funtsa, energiaren eraginkortasunerako funtsa eta I+G arloko jardueretara bideratutako funtsa. Horrekin batera, ekonomia eta finantzen emaitzei zein aurreikuspen ekonomikoari buruzko txostenak aipatzen ditu.

Ekimen interesgarrien artean, besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: Tampere (Finlandia), Zeeland (Herbehereak), Danimarkako hego-ekialdeko eskualdea, Wielkopolska (Hungaria), Preston (Erresuma Batua), Zarasai (Lituania), Austria Behereko eskualdea, Reggio Emilia (Italia), Kataluniako Generalitatea...

*Informazio gehiago:*

<http://portal.cor.europa.eu/europe2020/ClosedSurveys/Pages/AntiCrisisPoliciesinRegionsCities.aspx>



### > Banku sektorearen erreforma: kapitalaren eskakizun zorrotzagoak eta kudeaketa hobetzea

Finantza-krisiak Europako bankuen funtzionamenduan hainbat hutsune agerian utzi ditu, hala nola:

- Erreserben urritasuna, eta sarritan, horien kalitate kaskarra
- Aktibo likido nahikoak ez izatea
- Kapitalari dagokionez aktibo gehiegi eskuratzea

Egoera honen aurrean, Europako Batzordeak proposamen sorta bat aurkeztu du Europan aritzen diren 8.000 bankuen kudeaketa aldatzeko. Helburua horien sendotasuna indartzea da, eta aldi berean, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bermatzea. Batzordearen proposamenek hiru helburu zehatz dituzte:

- Kapitalaren bolumen handiagoa eta kalitate handiagokoa izateko obligazioa, etorkizuneko nahasmenduak euren kabuz jasan ahal izateko, eta bankuen kapitalaren gainean G-20 esparruan adostutako nazioarteko arauak ezartzea (Basilea III Akordioa).
- Gobernantzarako esparru berri bat, ikuskatzaileei bankuak estuki zaintzea eta arriskuak antzemanaz gero balizko neurri zigortzaileak hartzea ahalbidetuko dieten ahalmen berriak emanez.
- Bankuen jarduera arautzeko araudi-kode bakarra ezartzea.

Batzordearen proposamenak bi atal ditu: gordailuak erakartzeko jarduerarako sarbidea arautzen duen Zuzentarau bat eta kreditu erakundeek eta inbertsio enpresek euren jarduera garatzeko modua arautzen duen Araudi bat. Araudi berri hau 2012. urtearen amaieran onartzea aurreikusten da.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0453:FIN:ES:PDF>

[http://ec.europa.eu/internal\\_market/bank/regcapital/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/internal_market/bank/regcapital/index_en.htm)



### > Arrantza Politika Bateratuaren erreforma: epe luzeko jasangarritasuna

Europar Batasuneko arrantza-tokiek erlazionatutako hainbat arazo dituzte:

- Arrantza-flota handiegia eta eraginkorregia da, eta arrain populazio gehienetan gehiegi arrantzatzen du.
- Harrapaketen jaitsiera, eta horren ondorioz, arrantza-komunitateek euren aukera ekonomikoak erortzen ari direla ikusten dute.
- Erabaki politikoak epe laburreko interesetan oinarritzen dira, epe luzeko baliabideak mantendu beharrean.
- Bruselatik datorren beheranzko planteamendu legegileak ez dio sektoreari pizgarri gehiegirik eskaintzen modu arduratsuan aritu eta bitartekoen erabilera jasangarrian laguntzeko.

Horren aurrean, Europako Batzordeak neurri-multzo bat aurkeztu dizkie Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, prozedura legegile arruntaren bidez har daitezten. Batzordearen xedea araudi berria 2013ko urtarilaren 1a aurretik onartzea eta indarrean sartzeta da.

Jasangarritasuna eta proposatutako neurriak bideratzen dituzten epe luzeko soluzioak, besteak beste, ondorengo oinarritzko printzipioetan oinarritzen dira:

- Arrain populazio guztiak maila jasangarrian egon behar dira 2015. urterako.
- Arrantza-toki guztietan planteamendu ekosistemikoa ezarriko da eta epe luzeko kudeaketa-planak barne hartuko ditu.
- Harrapatutako arrain guztia lehorreratu egingo da, eta baztertutako arrainak kenduko dira.
- Proposamenen barruan gehiegizko arrantza saihesteko helburuak eta epe zehatzak ere jasotzen dira.
- Merkaturatutako produktuen kalitatea eta jasangarritasunari buruzko informazioa hobetuko da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/fisheries/reform/index\\_es.htm](http://ec.europa.eu/fisheries/reform/index_es.htm)

[http://ec.europa.eu/fisheries/news\\_and\\_events/speeches/20110713\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/fisheries/news_and_events/speeches/20110713_en.pdf)



## KOMUNITATEKO POLITIKAK

### > Berrikuntza: 7.000 milioi euro sustapenerako

Europako Batzordeak 7.000 milioi euroko inbertsioa iragarri du ikerketaren bidez berrikuntza sustatzeko, Ikerketari buruzko VII. Esparru-programaren atal gisa.

Diru-laguntzen bidez ikerketa bultzatuko da, modu horretan Europari eta munduari eragiten dieten erronka sozial nagusiei aurre egiteko, eta unibertsitate, ikerketa erakunde eta enpresetara bideratuko dira. Enpresa txiki eta ertainei arreta berezia jarriko zaie, eta 1.000 milioi inguru emango zaizkie.

Deialdien helburu nagusia erronka sozialei aurre egiteko orduan, hala nola, biztanleriaren zahartzea eta klima-aldaketa, ikerketa eta berrikuntza integratzea da, eta lanpostu eta hazkunde jasangarriak sortzea, Europa etorkizuneko teknologia-merkatuen buru kokatuz.

*Informazio gehiago:*

[http://cordis.europa.eu/home\\_es.html](http://cordis.europa.eu/home_es.html)

<http://ec.europa.eu/research/participants/portal/page/home>

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/11/900&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=fr>



### > Europako zaporeen sustapena

Europako Batzordeak liburu berde bat argitaratu du Europar Batasuneko nekazaritza-produktuen sustapen eta informazio sistemei buruz. Batzordeak etorkizunari begira estrategia zehatzagoa eta anbizio handiagokoa nola taxutu aztertzen du, alegia, kontsumitzaileei Europako nekazaritza-produktu eta -elikagaien kalitatea, tradizioak eta balio erantsia modu argiagotan azalduko diona.

Liburu Berdeak lau atal ditu: politika honen balio erantsi europarra; EBko barne-merkatuan aplikagarriak diren helburuak eta neurriak; munduko merkatuetan aplikagarriak diren helburu eta neurriak; eta politika honen eduki eta kudeaketari lotutako gai zabalagoak.

Dokumentuak askotariko alderdiei buruzko 16 galdera planteatzen ditu, eta interesa duten alde guztiei (kontsumitzaileak, ekoizleak, banatzaileak eta agintari publikoak) oharra eta iradokizunak irailaren 30a baino lehen aurkezteko gonbitea luzatzen die.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/agriculture/promotion/policy/green-paper/com2011-436\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/agriculture/promotion/policy/green-paper/com2011-436_es.pdf)

*Kontsulta:*

[http://ec.europa.eu/agriculture/promotion/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/agriculture/promotion/index_en.htm)



### > Bizitza luzeagoa eta hobea: aukerak eta erronkak

Bizitza luzeagoari eta hobeari buruz Batzordearen Gomendioak honako gogoetak egin ditu:

- 65 urtetik gorako europarren kopurua 2010ean 87 milioi izatetik 2030ean 124 milioi izatera pasatuko dela aurreikusten da; horrek % 42ko igoera nabarmena adierazten du. Bizi-itxaropenaren etengabeko igoera hau azken urteotako lorpen garrantzitsuenetako bat da.
- Egungo politikekin jarraituz, biztanleriaren zahartzeak eragindako gastu publikoa areagotu egingo da Batasunean, gutxi gorabehera BPGaren portzentajezko 4,75 puntu hemendik 2060. urtera.
- 2010 eta 2060 artean, lan egiteko adina duten biztanleak 50 milioi gutxiago izango dira, eta ondorioz, mendekotasun adierazleak handitu egingo dira.

Egoera ikusita, pertsona helduek bizitza aktiboa eta osasungarria denbora luzeagoan izateko aukera izateak gizartearentzat abantaila handiak ekarriko dituela uste du; horrela, ekonomian eta gizartean integrazioa hobetuko litzateke, euren independentzia mantentzeko aukera izango lukete eta euren bizi-kalitatea eta zaintzen dituztenena hobetuko litzateke. Bestalde, gizarte-babesaren erregimenen bideragarritasuna ere hobetuko litzateke (pentsioak, osasun-arreta eta epe luzeko zainketak) eta hobeto zahartzea ahalbidetuko luketen soluzio berritzaileentzat merkatu aukera zabalak sortuko lirateke.

Eta eskaintzen diren aukerez baliatzeko erronka honi erantzuteko, ekintza bateratu bati ekitea proposatzen du, goi-mailako ikerketan elkarlana errazte aldera. Ekintza hori erabakitzen diren esku-hartzeak babestuko litzatekeen froga zientifikoak ematera zuzenduta dago eta estatu kideei ikerketaren programa estrategikoaren esparruan ekintza-multzo bati ekin diezaioten eskatzen die.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2011:183:0028:0030:ES:PDF>



### KOHESIO-POLITIKA

#### > Gipuzkoa: EGEFek batera finantzaturako bost proiektu berri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak aurretiaz onetsi ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak baterako finantzaketa europarra eskuratzeko xedearekin aurkeztutako bost proiektu berrien inguruko informazioa helarazi zitzaion Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordeari joan den maiatzean.

Honako hauek dira proiektuak: Biodonostia, minbiziaren inguruko Ikerketa Azpiegitura eta Ikerketa Proiektuak, Smart Grid Gipuzkoa, Erlea proiektua, ibilgailu elektrikoaren sustapena Elgoibarren eta Sarecar Sarea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak landutako uztailako hileroko oharrean proiektu bakoitzaren helburu eta ezaugarri nagusiak jasotzen dira.

*Informazio gehiago:*

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/notas/2011-07\\_lruzkina.pdf](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/notas/2011-07_lruzkina.pdf)

#### > Lurralde Lankidetzarako Europako Taldeak (AECT): lortutako emaitzak

Batzordeak AECTen inguruko txosten bat aurkeztu du. AECTak 2006an sortu ziren nazioz gaindiko lurralde lankidetzak laguntzeko tresna juridiko gisa, eta ekimenei zuzenean aplikagarriak zaizkien oinarri europar iraunkorra eskaintzen die.

Lurralde lankidetzarako estrategia hobetzeko xedearekin sortu zen tresna hau, eta era berean, estrategia hori malguagoa eta errazagoa bilakatzeko; halaber, lankidetzak jarduerak aplikatu eta kudeatzeko orduan, legeria eta prozedura nazional desberdinen ondorioz estatu kideek izaten dituzten zailtasunak murrizteko, zehazki eskualdeetako eta tokiko agintariei dagozkienak.

Txostenak tresna honen emaitzak aztertzen ditu; jada 16 AECT eratu dira eta 21 prestatzen ari dira. Aipatutako kasuen artean, mugaz haraindiko lehen ospitalea nabarmentzen da, AECT baten emaitza da eta 2012an irekiko ditu ateak Puigcerdán.

*Informazio gehiago:*

<http://portal.cor.europa.eu/egtc/en-US/news/Pages/ECReportonEGTC.aspx>





### > Senior Enterprise, Europako lurralde lankidetzaren proiektua

Senior Enterprise proiektua Europako lurralde lankidetzaren helburuaren barruko Ipar-mendebaldeko Europa programaren esparruaren baitan garatzen ari da.

Proiektuaren helburua 50 urtetik gorako pertsonen enpresak sortzen, negozioetan inbertitzen, ekintzaileei aholkua ematen eta berrikuntzaren alde egiten laguntzea da. Proiektuan Irlanda, Erresuma Batua eta Frantziako erakundeek parte hartzen dute.

*Informazio gehiago:*

<http://www.seniorenterprise.ie/>

### > Europako eskualdeen kapital-stocka

Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza Nagusiak lanerako dokumentu bat landu du Europako eskualdeetako kapital-stockaren kalkulak lantzearen bideragarritasunari buruz.

Azterketak erabilitako metodoa eta datuak aztertzen ditu, eta baita falta diren balioak osatzeko erabilitako teknikak ere. Inbentario jarraituaren metodoa da jarraitutako ikuspuntua, eta kapitalaren neurketari buruz ELGAren eskuliburuan deskribatutako planteamenduan oinarritzen da.

Dokumentuak kapitalaren gainean egindako kalkuluen sendotasuna eta ekoizpenean duen eragina aztertzen du, eta hobetzeko formulak proposatzen ditu.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/work/2011\\_01\\_capital\\_stock.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/work/2011_01_capital_stock.pdf)



### e-LIBURUTEGIA

#### > Gastu publikoa Europar Batasuneko herrialdeetan 2005-2010

Batasuneko herrialdeetako administrazio publikoen guztizko gastua BPGaren % 50,3 izan zen 2010ean, Eurostatek landutako txostenaren arabera. Portzentajea aurreko urtekoa baino portzentajezko bost hamarren baxuagoa da, baina 2005-2008 aldikoa baino nabarmen handiagoa (BPGaren % 46 inguru).

Gastu erlatibo handiena duten estatuak (% 55etik gora) Irlanda, Danimarka, Frantzia eta Finlandia izan ziren. Aitzitik, bost estatu ez ziren % 42ra iritsi: Estonia, Errumania, Eslovakia, Luxenburgo eta Lituania.

Gastuaren funtzioen artean (2009ko datuak) gizarte-babesa nabarmentzen da, BPGaren % 20,1 delarik. Segidan, osasun-arloko gastua (% 7,4), zerbitzu orokorrak (% 6,6) eta hezkuntza (% 5,6) daude.

Batasuneko zazpi estatutan gizarte-babesean egindako gastuaren portzentajea % 20 baino altuagoa da. Honako hauek dira: Danimarka, Finlandia, Frantzia, Suedia, Austria, Alemania eta Italia. Eta beste zazpitan ez da % 15era iristen: Zipre, Eslovakia, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Letonia, Errumania eta Malta.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-11-042/EN/KS-SF-11-042-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-042/EN/KS-SF-11-042-EN.PDF)



### > NDF: Eurogunearen urteko txostena

Nazioarteko Diru Funtsak euroguneke ekonomiari buruzko urteko txostena argitaratu zuen uztailen.

Txostenaren iruzkinen artean, honako hauek aipagarriak dira:

- Oro har, susperraldia irmoa da, baina kontinentearen periferiak jasaten duen krisi izugarriaren ondorioz aldeko aukerak itotzeko mehatxua dago, eta lan handia dago egiteko diru batasun dinamikoa eta iraunkorra lortzeko.
- Periferiako krisia kudeatzeko ikuspuntu elkartuagoa eta lankidetzan oinarritutakoa behar da.
- Periferiako krisiari eustea lortuko balitz ere, etorkizunean EDBren hazkundea sustatzeko eta suspertzeko gaitasuna indartzeko politika programa zabal bat jasotzen da.

Munduko ekonomia mehatxatzen ari den krisi ikaragarri honen aurrean azkartasunez erantzun dezaten eskatu die NDFak Europako agintariei; halaber, zor publikoaren krisiaren aurrean ekintza-plan koherente bat eskatu die, banku sektorearen ahultasunen aurrean zalantzez betetako etorkizuna kontuan hartuta.

*Informazio gehiago:*

<http://www.imf.org/external/pubs/ft/scr/2011/cr11184.pdf>

<http://www.imf.org/external/spanish/np/ms/2011/062011s.htm>

### > Europa 2020 Estrategiaren dimensio soziala

Gizarte-babeseko Batzordearen txostenak inklusioa sustatu eta pobrezia murrizteko ekintzak aztertzen ditu, Europa 2020 Estrategiaren helburuen esparruaren baitan.

Nagusiki, gizarte-babeseko sistemen jasangarritasunera bideratutako ekintzak, gizarte inklusioari begirako estrategia aktiboak eta epe luzean osasun-arretan eta zainketan eraginkortasun handiagoa lortzeari buruzko ekintzak aztertzen dira.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=89&newsId=1053&furtherNews=yes>



### ADIERAZLEAK

#### > Europako ekonomiaren hazkundera gelditu da: % 0,2 bigarren hiruhilekoan

Bigarren hiruhilekoari dagokionez Eurostatek egindako balioespen azkarrak erakusten du Batasunaren hazkundera ekonomikoaren abiadura moteldu egin dela, aurreko hiruhilekoari dagokionez % 0,2ra iritsiz. Lehen hiruhilekoan hazkundera % 0,8 izan zen.

Europako ekonomia nagusietan abiadura moteltzea handiagoa da. Berez, Alemanian bigarren hiruhilekoan hazkundera % 0,1 izan zen (lehenengoan % 1,3) eta Frantzian % 0,0 (aurrekoan % 0,9).

Batasun osoko urtetik urterako tasa % 1,7ra arte geldotu da, aurreko hiruhilekoari zegokiona baino portzentajezko zortzi hamarren baxuagoa.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/2-16082011-AP/EN/2-16082011-AP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-16082011-AP/EN/2-16082011-AP-EN.PDF)

#### > Europako enpresa txiki eta ertainen zifra nagusiak

Europako enpresei buruz 2011ko edizioan Eurostatek egindako txostenak enpresa txiki eta ertainen adierazle nagusietan jartzen du arreta, hala nola, enplegua, balio erantsia eta produktibitatea. Azterketa mikroenpresen zein enpresa txiki eta ertainen kasuan egin da.

Era berean, enpresa europarren egiturazko datu nagusiak eta nazio-mailako zein eskualde-mailako espezializazioa jasotzen ditu.

Hirugarren atal nagusian jardura ekonomikoaren 14 enpresa-sektore nagusien duela gutxiko bilakaera eta ezaugarri nagusiak jasotzen dira.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-ET-11-001/EN/KS-ET-11-001-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-ET-11-001/EN/KS-ET-11-001-EN.PDF)



### > Giza garapenaren eta pobreziaren eskualdeko adierazleak

Regional Focus Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren argitalpenak Europar Batasuneko giza garapenaren eta pobreziaren eskualdeko adierazleak aztertzen ditu.

Adierazleek nabarmentzen dutenez, giza garapen maila altua izateak ez du giza pobrezia maila txikia bermatzen, eta alderantziz. Hain zuzen ere, zenbait eskualdek giza garapen maila altua eta pobrezia maila altua konbinatzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, garapen urria dute eta aldi berean, pobrezia maila baxua.

Iparreko estatu kideek, hala nola, Alemaniak, Austriak eta Herbehereek, giza garapen maila altua eta giza pobrezia maila baxua dute. Balantzaren beste muturrean, Portugal, Espainia, Italia, Grezia, Errumania, Bulgaria eta Hungaria bezalako herrialdeetako eskualde ugari emaitza txarrak dituzte bi adierazleen kasuan.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/focus/2011\\_02\\_hdev\\_hpov\\_indices.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/focus/2011_02_hdev_hpov_indices.pdf)